

# Aretxagazeta

Aretxabaleta  
1995eko otsailak 9

**S**an Blas  
eguna

**L**udotekaren  
lehen  
emaitzak

**S**an Martin-  
San Jose  
kofradia

**Agustindar Elkartea: ia  
mende bat atxabaltarron  
artean**

FORMAKUNTZA IKASTAROAK  
H E Z O I T E K



**IRAKASLE ESKOLA**  
ESKORIATZA  
Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Teknologia Berrien Departamentua

- **MULTIMEDIAREN APLIKAZIOAK ENPRESAN:**  
Otsailak 17, 18, 24 eta 25, martxoak 3 eta 4, apirilak 7, 8, 21 eta 22. Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 8tik 15era.
- **KOMUNIKAZIO ENPRESARIALA ETA INSTITUZIONALA:**  
Martxoak 10, 11, 17, 18, 24, 25 eta 31, eta apirilak 1. Ostiralak eta larunbatak. 45 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **ENPRESA ETA INSTITUZIOETAKO BOZERAMAILEEN PRESTAKUNTZA:**  
Maiatzak 6 eta 13. Larunbatak. 16.00etan. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **CD-ROM-EN APLIKAZIOAK ETA ESPLOTAZIOA ENPRESAN:**  
Maiatzak 12, 19 eta 20. Ostiralak eta larunbatak. 15 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- **KOMUNIKAZIOA ETA OSASUN SUSTAPENA:**  
Ekainak 2, 3, 9, 10, 16, 17, 23 eta 24. Ostiralak eta larunbatak. 48 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.

FORMAKUNTZA IKASTAROAK  
H E Z O I T E K



**IRAKASLE ESKOLA**  
ESKORIATZA  
Irakasleen Unibertsitate Eskola  
Teknologia Berrien Departamentua


- **3D-KO DISEINUA AUTOCAD 13REKIN PC-REN GAINEAN:**  
Martxoaren 8tik maiatzaren 12ra, astegunero. 120 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
  - **3D-KO ANIMAZIOA 3D-KO STUDIOREKIN PC-REN GAINEAN:**  
Maiatzaren 15etik uztailearen 7ra, astegunero. 120 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
  - **AUTOEDIZIOA PAGE MAKER 5.0-REKIN PC-REN GAINEAN:**  
Maiatzaren 29tik uztailearen 7ra, astegunero. 90 ordu. Matrikulak otsailaren 20tik 24ra.
- INFORMAZIO GEHIAGO ETA PROGRAMAK NAHI IZANEZ GERO, ESKATU IKASTAROEN KATALOGOA TELEFONO HAUTAN:  
71 50 89 eta 71 46 37



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Ekonomia Departamentua  
Departamento de Economía



FONDO SOCIAL EUROPEO



ARRASATE  
KRISTALDEGIA

ANBULETEGI PAREAN

Kristaldegia orokorrean  
Erakusketa bikaina

- BEIRATEAK ETA GRABATU ARTISTIKOAK
- HALL, EGONGELA ETA BAINURAKO ISPILU BISELATUEN MURALAK
- LORANTZIAK, EURITAKONTZIAK ETA ISPILUZ HORNITUTAKO KONTZOLAK
- BEIRAK ETXEBIZITZAN IPINTZEN DITUGU

Biltegia eta erakusketa:  
Nafarroa Etorbidea, 25 behea  
Tfno. eta faxa: 77 07 74

## Zer gogoratzen duzu monjetan ibilitako sasaitik?

*Roberto Rodrigez*  
(Langileak)

*Oso pasta goxuak egiten zituztela eta behin gela ilunera eraman nindutela gogoratzen naiz. Han mahai bat eta erratz batzuk zeuden.*




*Saioa Eskibel*  
(Ikaslea)

*Urtean behin mantekaua egoten zela gogoratzen naiz, eta gaizki portatuz gero gelailunera eramango gintuz-tela esaten zigutela.*



*Edorta Antxia*  
(Langabetua)

*Nahiko okerra nintzen eta gogoratzen naiz noizbaiten zaplaztekoren bat ere irabazi nuela. Eskola aurrean zelaia zegoen eta baloiaz ginen jolasean.*



*Angel Martinez*  
(Langileak)

*Nire garaian uniformeak eramaten genuen, fraka urdinak, alkondara zuria, jertse urdina eta mota zuridun korbata. Monjak ezkutatuta egoten ziren.*



Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria



Kultur sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria



Aretxabaletako  
Udalak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

## ESKUTITZAK

*K*aixo lagunak:

*Eskutitz hau zuei idazterakoan, zerbait interesgarria esan nahi dizuegu. Guk, Almeneko 8. mailako ikasleok, lehengo hiruhilabetean "Iparra eta Hegoa" gaia aztertu dugu eta ondorio argi bat ateratu dugu: Ekuadorretik Iparraldera gaudenok, Hegoaldean daudenak baino askoz hobeto bizi gara. Hori argi dago, baina nortzuk dira horietaz akordatzen direnak?*

*Aurten horri buruz pentsatzen aritu gara eta solidaritate ekintza bat egin dugu. "SOS Balkanes" taldekoek emandako zerrenda bat Almeneko 4., 5., 6., 7. eta 8. mailara artean banatu dugu eta hauek janari, erropa, zapata, higienerako materiala etab. ekarri dizkigute. Kaxetan sartu ditugu eta kamioi batek Donostiara eraman ditu. Han hegazkin batean sartuko dituzte eta Bosniako herri batera eraman. Laguntza honekin, gure adiskide, asko hobeto bizi ahal izango dela uste dugu.*

*Eskutitz honen bitartez, ekintza hau burutzen lagundu digutenei eskerrak bidaltzen dizkiegu.*

ALMENEKO 8. MAILAKO

IKASLEAK

## MUS TXAPELKETAKO IRABAZLEAK



Alfonso Arribas eta Juan Aldai

### Alfonso Arribas eta Juan Aldai suertatu ziren txapeldun

Duela 14 urte hasi zen Elkartearen arteko Mus Txapelketa jokatzeko. Edizio honetan sei elkarterek hartu dute parte: Muru-Alde, Uratz-Alde, Urbaltz, Larrino, Eguzki-Alde eta Hibai-Gainek.

Finala Hibai-Gain Elkartearen jokatu zen eta bertan Urbaltz elkartereko **Alfonso Arribas** eta **Juan Aldai** izan ziren txapeldunak. Sari gisa,

bi irabazleek trofeoa eta txapela bana jaso zituzten. Bigarren tokian Uratz-Alde elkartereko **Iñaki Arana** eta **Isidro Vicente** geratu ziren, hauek ere trofeo bana irabaziz.

Bestelako saririk egon ez bazen ere, partaide guztiek afari goxo bat jateko aukera izan zuten, kokotxak eta solomiloa.

## Bi atxabaltar "Baietz barrez lehertu" programan

Urtarrilaren 30ean, Almeneko 4 ikasle Galdakaon izan ziren "Baietz Barrez lehertu" leikiaketarako grabazioak egiten. Lau gazte hauetatik bi atxabaltarrak ditugu, **Joseba Arkauz** (4.maila) eta **Xabier Makatzaga** (5.maila), beste biak bata arrasatearra, **Ion Etxebarria** (6.maila) eta bestea eskoriatzarra da, **Aitor Oiarzabal** (3.maila). Eurei laguntzen **Eli Akixu** andereño atxabal-

tarra izan zen. Txiste lehiaketan parte hartu zuten eta Debako beste 4 neska-mutilen aurka aritu behar izan ziren. Baita irabazi ere! Bakoitzak opari bana irabazi zuten eta horrez gain Almen ikastolarako bideo eta telebista bat ere ekarri zuten. Sari bikaina beraz lau gaztetxo hauek eskuratu zutena. Seguraski saioa otsailaren 23an ikusi ahal izango da Euskal Telebistan.

## Atxabaltarrak protagonista Donostiako 6 orduetan

Joan den zapatuan, hilaren 4an, urtero bezala Euskadiko 6 orduak jokatu ziren Donostiako Belodromoan. Bertan hainbat atxabaltar protagonista izan ziren.

Alde batetik, Iñurategi anaiei egin zitzaizkien omenaldia beste batzuen artean, horrela

plaka bana eta lore sorta bana jaso zituzten, belodromoan bildu zirenen txaloen artean.

Bestetik Asier Guentxeak ere parte hartu zuen txirrindularitza proban. Palacinekin batera aritu zen eta azken sailkapenean 12. postuan bukatu zuten.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

**Marti**

RELOJERIA - BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzuan

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

**MZ** MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A  
Tfnoa: 79 71 55

## SAN BLAS EGUNA

Lagun asko bildu zen ermita  
inguruan

Otsailaren 3an, eguakotxean San Blas eguna ospatu zen Sailuenten. Eguraldi ederra egin zuen eta makina bat lagun, haur, gazte eta heldu hurbildu zen bertara. Meza goizeko 11etan izan zen eta ermitara igo ziren gehienek motxilan janari desberdinak eramane zituzten bedeinkatzeko asmoaz, ogia, San Blas tortak e.a. Egun honetan ohitura da, bertan dagoen zuhaitzeko adartxoak hartu eta hauek ere bedeinkatzea.

Esan beharra dago, San Blas eguna gure bailara osoan eta baita Euskal Herri mailan ere arrakasta haundiko eguna dela. Eztarriko mina, "burutik berako", eztula eta abarrentzat saildu aproposa.



## Eguzki-Alde elkarteak patroiaren eguna ospatu zuen



San Blas-eko ermita aurrean dantza egin zuten neskek

Eguzki-Alde elkarteak bere patriaren eguna ospatu zuen joan den domekan, hilaren 5ean.

Goizeko 9etan salda bero-beroarekin eman zioten hasiera egunari. Goizeko 10etan meza izan zen San Blas ermitan eta ostean Loramendi talde-

ko neskek "Agurra", "Zinta dantza", "Arku dantza" eta "Makil Txiki dantza" dantzatu zituzten ermita aurrean.

Eguraldi ederra lagun zutela, ikuskizun polita eskaini zuten. Bukatzeko, luntxa izan zen Eguzki-Alde elkartean.

JANTZI DENDA

# ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABALETA

## URBALTZ

### TABERNA

Mitarte 21, behea  
Tfnoa: 79 79 79

ARETXABALETA



## ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

## GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 79 01 28

## Gaztetxean Egun berezia 4. urtemuga dela eta

Gaztetxea sortu zenetik 4 urte pasa dira dagoeneko. Horregatik Aretxabaletako Gazte Asanbladak (A.G.A.) jaialdi bat antolatu du otsailaren 11rako.

Egun berezi honek ondorengo egitaraua izango du: hasteko, goizeko 12etan txupinazua izango da, etxafleruak e.a. jaurtiko dira. Ondoren, 12,30etan poteo popularra egongo da eta gero bazkari popula-

rra Gaztetxean. Hasteko entsalada, gero saietsak eta postre-rako bertako sukaldariak egingo dituzten tartak.

Arratsaldeari mus eta tute txapelketez emango zaio hasiera. Parte hartu gura duen pareja bakoitzak 500 pezeta jarri beharko ditu. Sariak hauexek izango dira, bai tutean eta bai musean:

- 1.- Trofeoa eta jasotzen denaren %50a
- 2.- %35a
- 3.- %15a.

Ondoren partxis txapelketa egongo da eta hemen ere pareja bakoitzak 500 pezeta jarri beharko ditu. Sariak ondorengoak izango dira:

- 1.- Trofeoa eta %50a
- 2.- %35a
- 3.- %15a

Jaialdiarekin jarraitzeko, arratsaldeko 6etan, futbolin txapelketa izango da. Hemen ere 500 pezeta ordaindu beharko da eta sariak aurrekoetan aipatutakoak izango dira. Futbolin txapelketa amaitu ostean kaleko animazioa izango da.

Arratsaldeko 7,30ak inguru txokolatada izango da eta egunarekin bukatzeko kontzertua, oraingo honetan, **Flying Rebollos taldearekin.**

Atxabaltar guztiok jaialdira etortzera animatzen dituzte antolatzaileek, denok egun eder bat pasatzeko asmotan.

## Santa Ageda mutilak

Aurtengo kintoak 76. urtean jaiotakoak dira. Guztira 50 bat kinto inguru dira. Santa Ageda bezperan, hilaren 4an, baseritik baserri eskean eta kantuan aritu ziren. Dirua, arraultzak, txorixoak e.a. jaso ondoren, bazkaria eta afaria egin zituzten Gurea tabernan.

Igandean berriz, goizean herrian kantatu ondoren, 7etan banakoa eta desafioa dantzatu zituzten, ondoren kalejira batez amaitzeko. Bukatzeko neska-mutil guztiak txokolatada izan zuten Basabe jatetxean. Ikusi ez zutenek aukera izango dute berriz kintoak igandean ikusteko.



### Epelde

- Estudioa
- Ezkontza-erreportaia
- Bideoa
- Argazkiak

Iturriotz, 24  
Tfnoa: 79 19 71



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 79 34 28  
**ARETXABALETA**



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76

**TXIMAK**  
Hileapaindegi mixtoa

Herriko Plaza, 5- Behea  
Tfnoa: 79 83 64  
**ARETXABALETA**

## Ludotekaren lehenengo emaitzak

**Historia eginez, duela bi urte hasi zen Loramendiko (orduan Beinke) haurren taldea ludoteka proiektua moldatzen. Lantalde hau, Kurtzebarri eskola, Almen, Ortzadar eta Loramendiko bertako irakasle eta begirale talde batek osatu zuen.**


Proiektu hau Udalarari aurkeztu ondoren, honen eta Foru Aldundiaren laguntzaz hiru hilabeteko froga egiteko asmotan zabaldu zuten. Zabaldu zen ezkerro bi hilabete igaro direnean, hasierako balantzea egiteko ordua heldu da. **Alberto Arenaza** Loramendiko bazkideak eginiko programa informatiko bati esker, haur bakoitzak egunero erabilitako jostailuak eta hauekin landu dituen alorrak jakin daitezke. Esan beharra dago ludotekei dagokien ez esperimentzia pilotoa dela honako hau.

Grafikoan ikusten den bezala, Loramendiko haurren taldeak hutsune nabarmena ikusten du

eskulanen alorrean. Beste alor batzuetan ere hutsuneak ikusi ahal izan dira, gehienbat umeen partaidetza handiak sorturikoak; honek ludoteka txiki utzi du eta ludotekaria bera ere asko mugatzen du taldeko ekintzak antolatzerakoan. Bestalde, haurren asistentzia zabala baino askoz positibagoa ikusten da euskararekiko zenbaitek izan duen jarrera aldaketa. Hain emaitza onak jaso

ondoren, batzorde teknikoaren sentsiblerazaltzen da, bi urtean zehar hainbeste kostatuko lana, hiru hilabete laburretako erabilpenean gelditu beharraz.

Bukatzeko, gurasoren batek bere seme-alabari buruzko balantzea jakiteko gogorik balu, ludotekariari edo eta Loramendi K.E. norbaiti jakinaraztea besterik ez duela egin behar, jakinarazten zaio. Astebetere barruan entregatuko litzaioke.



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

## Guraso erdaldunen seme-alabeetatik %19ak badaki euskaraz

Euskal Autonomi Elkar-tean guraso erdaldunak dituzten 12 eta 15 urte bitarteko gazteen %19k bakaki euskaraz. Guraso euskaldunak dituztenen artean, aldiz, portzentaia %97,47koa da. Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak egindako ikerketatik aterata daude datuok.

(Administrazioa euskaraz)

## Euskaldunak eta euskara

Euskal Kulturaren Batzarreak (EKB) egindako ikerketaren arabera, Euskal Herrian euskara erqbiltzen duten biztanleak, batez beste, %11,61 dira: Araban %2,09, Nafarroan %5,73 eta Iparraldean %4,92. Nahiz eta euskararen erabilera oraindik ere oso urria izan, azken urteotan %17,51ko igoera izan dela azpimarratu dute EKBko kideek.


(Administrazioa euskaraz)

## Lur hiztegi entziklopedikoa amaituta

Liburuki anitzeko lehen Euskal entziklopekia, Lur Hiztegi Entziklopedikoa, amaituta dago jadanik. Entziklopedia osatzen duen hamargarren alea hilaren 26an aurkeztu zuten Donostian. "Gai guztiei buruz argi, argi eta argi idazten ahalgindu gara" azaldu du Josu Zabaleta zuzendariak.

*Hogeita bost lerrotarako ematen duen zutabe batean ezin da gauza askorik esan, are gehiago kontutan hartuta gaia zabal samarra dela. Kasu honetan hauxe litzateke erantzun beharreko galdera: Zergatik da hain inportantea gure Herrian euskarazko komunikabideak izatea?*

## "Euskararazko komunikabideak"



Jabier Marcos


*Boteprontoan arrazoi batzuk okurritu zaizkit. Lehenik eta behin komunikabideek herria eta hizkuntzaren arteko zubia eraikitzen dutelako. Euskarazko komunikabiderik ez balego herria eta hizkuntzaren arteko loturarik ez legoke. Pentsa ezazue zer izango litzatekeen gure Euskal Herria euskarazko telebista, irrati eta prentsa idatzirik gabe. Hizkuntza bihotza, komunikabideek ahotsa. Bigarrenik, gure hizkuntzaren normalkuntza bidean komunikabideek (euskarazkoek) betetzen duten lana oso garrantzizkoa dela. Telebista, irrati, eta prentsa idatzia euskaraz izatea hizkuntzaren normalizazioan duen eragina begien bistakoa da. Hirugarrenik, komunikabideek hizkuntza batek duen ondarea, patrimonioa osatzen dute. Ondarea gero eta handiagoa, hizkuntza ere gero eta aberatsagoa. Eta laugarrenik, bere helburua betetzen dutela hizkuntza nazional bakarra eraikitzeke orduan; euskalkien "mugak" gaindituz mugarik gabeko hizkuntza bateratu bakarra sortzen dute euskaldun guztientzat.*

Hamar liburuk osatzen duten entziklopediaren azken alea ilaren 26an aurkeztu zen.

Entziklopediaren ezaguri teknikoak hauexek dira: 10 liburuki, 4600 orrialde, 54.662 sarrera eta 40.000 azpisarrera, 20.000 marrazki eta argazki, mapa mundi bat,

224 lurralde mapa, Euskal Herriko 8 mapa, eskualde, herrialde eta departamenduen 160 kokaera mapa, eta 100 diagrama. Jendeari dagokionez, hogeita bost pertsona inguruko talde bat aritu da lanean.

(Egunkaria)  
(1995-01-27)



LOGOPEDIA  
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk  
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A



ELIKADURA  
BEREZIA

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA



Zenbaki

Aholkularitza

Basabe Industrialdea  
Aretxabaleta

Tfnoak: 79 88 75  
79 75 99





## San Jose-San Martin kofradia

**S**an Jose- San Martin kofradiak 100 urte baditu dagoeneko. Aktetan agertzen den datarik zaharrena 1855ekoa da. Kofradiak bi izen horiek izateak (San Jose eta San Martin) badu bere esplikazioa, lehen bi kofradia ezberdin ziren eta gero 1969. urtean biek bategin zuten.

Kofradia honen helbu-rua, pertsona bat hil-tzen denean, familikoei zerbi-tzu bat ematea da. Zerbitzu hauen artean ondorengoak egongo lirateke: hildakoaren etxera zerraldoa eramane, hil-kotxeari deitu, hilketa, bedera-tzihurrena eta urteurrenaren prestakuntzak egin, senitarte-koentzat hiru taxiren zerbitzua eskaini eta herrian hildakoen eskelak ipini. Tramiteak Arrasate funerariak egiten ditu. Azken finean, Agustinek eta Pablok esan digutenez, “*familiartekoei laguntza morala ematea da garran-tzitsuena eta ez zaio alderdi ekonomikoari begiratzen*”.

Kofradiak oso sustrai



Hona hemen kofradiako akta zahar bat (1.896)

gogorrak ditu herrian. Honen adierazgarri da, urteko bileretara biltzen den lagun kopurua, 200etik gorakoa izaten da. Gaur egun herriko 4.550 lagun daude kofradia honetan izen emanda.

Momentu honetan ko-fradiako batzordea 8 lagun daude. Honakook dira: **Agustin Aginagalde Aranza-bal, Pedro Mari Alzola Galdos, Iñaki Arana Barandiaran, Pablo Txintxurreta Etxebarria, Jesus Etxebarria Elorza, Luis Mari Zabalo Murguizu, Juan Orobengoa Zubia eta Jose Zubizarreta Isasmendi.**

Batzordeko kideak bi urtetik bi urtera aldatzen dira, urtero 4 berri sartuaz. Urteko kuota 600 pezetetakoa da pertsona bakoitzeko.

Datorren urteari begira, asmo berririk badagoela adierazi digute: “*Alde batetik, kofradiako erreglamendua egin nahi da eta beste aldetik kanpoan hiltzen direnentzat seguru bat jarri nahi da, kuotaren kopurua haundituz*”.

**AITZIBER**  
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 79 23 53  
ARETXABALETA

**Amaia-Berri, S.L**

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea  
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

**Artano**  
**Taberna**

Herriko Enparantza  
ARETXABALETA

FOTO

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20  
ARETXABALETA

**FELIX ARRESE**

Edari Banatzailea

Industrialdean  
Tfnoa: 79 60 65

**El León**

## AGUSTINDAR ELKARTEA



*Duela urte batzuk bota zen komentu zaharra*

**Agustindar Elkarteak ia mende bat darama atxabaltarron artean. Gurera Arrasateetik 1904an etorri ei ziren, baina bailaran elkarte sortu zeneko data zehatzik jakiterik ez dago. Dena den, XVI. mendearen erdia baino lehenagokoa izango da ziurrenik.**

1542koa da ezagutzen den lehenengo dokumentu idatzia. Bertan azaltzen dira buru egiten zuenaren eta beste zazpi monjen izenak, baita bere kokapena ere: “*Arrabal de Zarugalde, fuera de Mondragón, en el camino real para Durango y Bilbao, así como para la villa de Aramayona y aun para la ciudad de Vitoria*”. Beraz, Arrasateko Zarugalde kalean egon zen. Geroztik “San Agustín okindegia” ezagutu genuen

bertan, duela urte batzuk etxe bizitzak jasotzeko bota zuten arte.

1904ko otsailaren 9an eta, osasungarritasuna medio, Aretxabaletera etorri zen elkarte. Otorla bainuetxea erosi zuten bere inguruko lur eta sailekin 75.000 pezetetan, eta bertan jarri ziren bizitzen. Guztira 16 aizpa etorri ziren, gehienak arrasatearrak.

Gaur egungo elkarte osatzen dutenen artean hiru atxabaltar daude, eta gainerakoak gipuzkoarrak eta bizkaitarrak dira, denak ere euskaldunak.

Balnearioaren estruktura desgokiak eta berritze premiak alde batetik eta herrian kale berria eraiki beharrak bestetik, (azken honen trazoa konbentuko baratetik pasatu behar zelako) monastegi berriaren eraikuntza bultzatu zuten.

1978an onartutako “Plan Partzialean” jaso ziren asmo hauek.

1957. urtean eta herriaren eskakizunari erantzunez hasi zen

**Santa Rita Ikastetxea** bere zerbitzuak eskaintzen.

Garai hartako Eskola Nazionalea eta bakarraren alternatiba bezala eskeintzen zen, eskolaurrea eta *primaria* zena barne zituelarik.

Eskulanak, atzerri-hizkuntza, idazkaritzako prestaketak, etabar, ematen ziren.

Geroztik izan dituen egokitzapenak herriaren aldaketen eta eskakizunaren arabera etorri dira (mailen aldaketa, euskalduntzea, etabar).

Haur-eskola batean tokia izateak duen garrantzia kontutan hartuta, zelabait leku gehiago behar zutela erabaki zuten. Ondorioz, 1991ean obra berriak egin ziren ikastetxean, solairu bat gehituz, eta bertan jarri ziren ikasgela, laguntza gela, psikomotritate gela, jantokia, almagena, e.a. Horrela lortu zen ikastetxeak bultzatu nahi zuen hezkuntzaren kalitatea hobetzea.

Gaur egun 3tik-5 urte bitarteko 60 haur daude Santa Rita ikastetxean.



• Zerk bultzatzen du emakumezko bat monja sartzera?

Monja izatea Ebanjelioan sustraitzen den kristau bizikera bat da: Jesusi hurbilagotik jarraitzeko modu bat. Aukera hau egin ahal izateko dei bat sumatu behar da. Hau da: **bokazioa**.

• Gizarte honetan zein da zuen bizitzaren testigantza?

Bizitza hau fedetik begiratu behar da, bestela ez dago ulertzerik. Gure bizitzak lehendabizi esaten duena hauxe da: Jainkoa badela eta ez ideia edo indar huts bat, baizik **NORBAIT**, eta hau, ez hitzez baizik bizikeraz aitortuz.

• Zeintzuk dira zuen bizitzak azpimarratzen dituen baloreak?

Otoitza, senidetasuna, zerbitzua, itxaropena eta gizarte kontsumista honetan bizitza neurritsu bat.

• Zeintzuk dira monja baten beharrak elkartean?

Eguna banatua dago otoitza, lana eta elkarte bizitzaren artean oreka bat mantenduz. Goizean, goiz jaikitzen gara denbora ixilenak otoitzari eta Liturgi ospakizunari emateko, gero bakoitzak bere lanak ditu (batzuk etxeko lanak, beste batzuk haurren heziketa lana,...). Irakurketarako eta formaziorako bere denbora dago: atsedean eta elkarteko solasaldirako ere bai.

• Bihar edo etzi zuek ordezkatzeko nobiziarik

**Kristina Arriola Altzibararetxuluaga, Ama Kristinaz ezaguna, Markinan jaio zen. Santa Rita Ikastetxea zabaldu eta hurrengo urtean etorri zen Atxabaltara, 1958. urtean hain zuzen ere. Ondoren, Logroñon formazioan eman zuen urtebete eta gero Donostian magisteritza ikasketak egin zituen. Urte batzuren buruan, teologia ikasi zuen Donostiako Pio XII Institutuan. Ama Kristinak honela diozku: “ Hemen haur heziketan aritzen naiz, haur txikiekin lan egitea atsegin dut eta benetan gustora giten dudana lana da”.**

sortzen da? Bokazio falta dago akaso?

Bokazioa urritu dela bistan dago, eta arrazoi askorengatik, Europan bati bat: beste lurralde batzuetan alderantziz gertatzen ari da. Geroa ez dago gure esku eta horrek ez gaitu gehiegi kezkatu behar.

• Atxabaltako gaurko eta atzoko monjen artean alde handia omen dago... Gizarteak aldaketa asko ikusi ditu azken urteotan: monjen mentalitatea, pentsakera ere neurri berdintsuan aldatu da?

Erljioso bizitzan Kontzilio ondoren berritze eta gaurkotze handi bat egon da. Gure elkartek ere bide hori egin du “gaur eta hemen” Ebanjelioari eta historiari leial izan nahian.

• Zein da “Satisfakzio” hitzaren esanahia monja batentzat?

Denentzat bezala, norbere desioak beteta ikustea.

• Nola ikusten da gizartea zuen komunitatetik?

Bere alderdi argitsu eta ilunak itxaropenez begiraturaz.

• Galdera serioak alde batera utziaz, aisi-aldia nola pasatzen duzue?

Gehienbat tertulian. Honetaz gain ortuan, lorategian, irakurketan, e.a. aritzen gara.

• Zuen pastak oso ezagunak dira, zer duzu esateko...

Hori artesia lana da eta barietate handia dago, sukaldean aritzen direnek hobeto argituko lizukete galdera hori.

**FUTBOL EMAITZAK**

**1º ERREGIONALA**

TORING	1	VASCONIA	6
DANAK	5	UROLA	1
TOLOSALDEA	2	<b>ARETXABALETA</b>	<b>1</b>
GURE TXOKOA	2	BERGARA	1
TOLOSA	1	SORALUZE	0
ANAITASUNA	0	AMAIKAK BAT	2
ZUMAIAKO	5	ALDE ZAHARRA	1
ORIOKO	2	EUSKALDUNA	0
ILINTXA	0	AZKUENE	0
INTXAURRONDO	0	ALLERRU	4

**1º JUBENILA II**

ORIOKO	1	ANTONIANO	1
<b>ARETXABALETA</b>	<b>6</b>	DONIBANE	0
BURUMENDI	5	OIARTZUN	1
MIREN BIHOTZA	3	ZESTOA	1
ILINTXA	0	SORALUZE	1
HERNANI	1	BERGARA	0
MICHELIN	1	UROLA	0
ST. LIZEOA	1	SPORTING	2
ZARAUZ	2	LIZARDI	0

**SASKIBALOI EMAITZAK**

**JUNIOR GIZONEZKOAK**

ARRASATE	86	ANDRAITZ	82
ORDIZIA	69	IRAURGI	47

**KADETEA EMAKUMEZKOAK**

- A taldea -

GROS C	40	ATLETICO	50
ALDE ZAHARRA	38	IRUROK	35
AMIGOS	38	<b>ALMEN</b>	<b>29</b>
ITOITZ	16	ANDRAITZ	63

**KADETEA EMAKUMEZKOAK**

-B taldea -

ZARAUZ	32	ESKORIATZA	12
<b>ALMEN</b>	<b>50</b>	ETXADI	37
ONDARTZA	32	DON BOSCO	46

**PELOTA EMAITZAK**

**OHOREZKO MAILA**

MENDIA	10	IBON ERRASTI	18
--------	----	--------------	----

**EROSKI KONSUM**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g  
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

**BITXITEGIA**

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrean  
Tfnoa: 77 13 57

**ITURGINTZA**



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

*Okindegia - Gorrodegia  
Panaderia - Pasteleria*


*Aretxabaleta*

*Militaria, 1 - Tfno. 77 00 81*

*Aretxabaleta*

*Obrador Propio*

**EGUZKIGRAF**



**Aldizkariak  
Inpresoak  
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

**ARBULO  
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 79 02 24  
ARETXABALETA

**OSKAR  
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABALETA



**AZKENA  
TABERNA**

Solohaundi, 8 ☎ 79 74 57

## Atxabaltako pilotariak prestakuntza fisikoa lantzen



Pilotari gazteak

Pilotan aritzeko prestakuntza fisiko handia behar da.

Horregatik, **Alfredo Meabe**, Atxabaltako pilotari gazteei prestakuntza fisiko horretan lagundu nahian, hauek entrenatzen hasi da.

Entrenamendua kurtarrilean hasi zituzten. Astelehen eta asteazkenetan prestakuntza fisikorako entrenamendua egiten dute. Astearte eta ostegunetan berriz, pilotarekin entrenatzen dute,

Luis Mari Errasti eta Jose San Migel entrena-tzaileekin batera.

Momentu honetan kadete eta jubenil mailan dauden pelotariak, **Urki Errasti, Aitor Alzola, Iosu Lasagabater, Aitor Apraiz, Ibon Bartolome, Ion Mata, Asier Eraña, Ander Arietaleanisbeaskoa, Asier Atxa, Unai Uriarte, Aitor Bengoa eta Iñigo Zubia** dira.

Afizionatu mailan berriz, **Unai** eta **Ibon Errasti** daude.

### Almeneko neska futbol taldea

Nesken bi futbol talde sortu dira Almenen, bata infantil mailan eta bestea kadete mailan. Kadete mailan 15 neska daude, eta infantil mailan berriz

12 neska.

Datorren urteari begira talde bakarra sortu nahi da eta lerro hauetatik neska gehiago apuntatzera animatzen zaizue.

## ASIER DUBLAN: "azkartasuna da nire ezaugarririk nabarmenena"



Asier Dublan

Asier Dublan, 15 urtetako gazteak saskibaloian jokatzen du Arrasateko Maltzaga Urbina taldean. Kadete eta Jubenil mailan jokatzen du, biak tartekatuz. 1'73 metroko altuera dauka eta base lanetan aritzen da. Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioan ere jokatu du hainbat alditan.

- Denbora asko dedikatzen diozu saskibaloari?  
*Astero bost ordu entrenatzeko eta honez gain partidua dago.*
- Jokoan zein da zure ezaugarririk nabarmenena?  
*Azkartasuna. Eta flojoena? Indarra agian.*
- Saskiratzaille ona zara?  
*Bai, nahiko ona.*
- Zenbat puntu sartzen dituzu gutxigora behera partiduko?  
*15-20 puntu inguru sartzen ditut.*
- Gogoratzen duzu zein partidutan sartu duzun puntu gehien...  
*Kurtzeberri eskolan ari nintzela 34 puntu sartu nituen Antzuolako taldearen kontra.*
- Kirol gogorra da saskibaloia?  
*Agian beste kirol batzurekin pareketuz ez da hain gogorra.*
- Zein da zure gogoko jokalaria?  
*Michael Jordan, baina hau erretiratuta dago, eta bestela Pablo Laso. Baseak alde batera utziz, Arlaukas gustatzen zait.*
- Noizero biltzen zarete Gipuzkoako selekzioan?  
*Batzutan igande baten entrenatu eta hurrengo igandean partidua jokatzen dugu.*

### BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79

### LUDI-BERRI Musika taldea

- Ezteiak
- Bataioak
- Banketeak
- Jaialdiak

Tfnoak: 79 11 63/ 79 00 95

### Dorleta Taberna

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
Aretxabaleta

### ENBOR

*Eloiy Borgas Iglesias*  
• Sukalde muntatzailea  
• Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta  
Tfno-Faxa: 79 02 51

# Gaztetxo artistak gure eskoletan



## Altxorraren bila

Bazen behin Iker izeneko mutiko ttiki bat. Iker oso mutil jatorra zen, baina zori txarrez, zorte txarrekoa ere bazen. Egun batean Iker, bakar-bakarrik Urbasara joan zen, eta han artzai batekin egin zuen topo. Artzaiak oihukatu zion:

- Aizak gazte! oso gauza garrantzitsu bat esan behar diat.

- Zer? zer, esan behar didazu?

- Ba begira! -hasi zen artzaia,

- Nire arbasoen arabera, hemen, Urbasan altxor batek egon behar dik, eta dakidan bakarra da, ba... Urbasan dagoela eta nire bir-biratonarena zela.

- Bale ongi da! baina lehenengo Urbasa hobeto ezagutzen lagundu beharko didazu.

- Bai-bai mutil, hori egina zegok!

Egun batzuk pasa ondoren, Ikerrek ia dena zekien Urbasari buruz, eta orduan prestatu eta altxorraren bila abiatu zen.

Iker, oso pozik zihoan altxorraren bila eta gainera horretaz gain abesten ere bai. Baina bat batean... pun...! otso handi eta beltz bat agertu zitzaion.

Ikerrek adi-adi begiratu zion eta hara

Urtarrilaren 27an, Loramendi literatur lehiaketako sariak banatu ziren Loramendi Kultur Elkartearen. Denera 174 lan aurkeztu ziren eta lan hauen egileetatik batzuk sariak eraman ahal izan zituzten. Horietako bat, argazkian ageri den 10 urtetako **Irati Urkia** izan zen. Iratik lehen saria eskuratu zuen 3. eta 4. mailan aurkeztutako ipuinen artean. Hona hemen bere ipuina.

non ikusi zuen altxorra otsoaren hanka ondoan.

Orduan pentsatu zuen Ikerrek:

- Ala! zein ongi, altxorra aurkitu dut! Baina orain bakarrik hartzea falta zait. Otsoa bat-batean hizketan hasi zitzaion eta hauxe esan zion:

- Kaixo lagun ez dizut ezer egin behar eta. Begira altxor hau aurkitu dut eta ez dakit norena den.

- Aizu otsotxo, ba uste dut ni topatzen ari naizena dela.

- Baina zeinena da? Zurea edo beste batena?

- Ez, ba ez, ez da nirea baizik eta artzai zahar batena.

Niri esan zidan bere bir biratonarena zela eta Urbasan zegoela.

- Beno! horrelaxe bada hartu eta joan zaitez ziztu bizian.

Ikerrek kutxa hartu eta artzaiarengana abiatu zen. Heldu zenean, artzaia pozez zorutzen zegoen eta erdia Ikerri eman zion, beste erdia berarentzat gordez. Handik aurrera Ikerrek ez zuen zorte txarrik eduki eta zoriontsua izan zen.

## MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27

Tfnoa: 77 11 75

ARETXABALETA

## MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIATZA

## PORTASOL AROZTEGIA

Basabe Poligonoa, 1

Tfnoa: 79 34 84

## AMETS TABERNA

Iparragirre, 4

Tfnoa: 79 01 29

Aretxabaleta

## ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ☎ 79 32 34

ARETXABALETA

## DOIKALSE

Electroerosion  
Rectificado

Poligono Basabe C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak


Diagnostikoa-Orientazioa

Logopedia

Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10

☎ 79 47 77 ARRASATE



## ARGÍ-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri, 3 ARRASATE

Tfnoa: 77 11 30



*Argazkia ez dagokio urtaroari jakina. Sasoirako alkondara hutsean gutxitxo izango da agian. Dena den, aiaz dezagun negu hiau, eta, etorriko den udako eguzki izpiz margotuz, azgazkia hobeto ulertuko dugu.*

*Lehen Gerrate Mundiala bukatuaz bat, hemen argertzen direnak jaiotzen ziren. Aurten 68 urte beteko dituzte, eta aspalditxo bildu ziren urteko bazkaria eta argazkia ateratzeko. Batzuk, zoritxarrez ez daude gure artean baina seguruasko, bere kinto-lagunek gogoan izango dituztela.*

*Ezkerretik hasita, goian: Faustino Larrañaga, Ceferino, Tomas Lasagabaster, Prudencio Jausoro, Pascual Bazanbide, (ezezaguna), Angel Gabilondo, Amado, Simon Madinabeitia, Santiago Arietaleanizbeaskoa, Juan Izurategi, (ezezaguna).*

*Behetikaldean: Justo Unanue, Etxebarria, (ezezaguna), Facundo Sampedro, (ezezaguna), Francisco Oianguren.*

Iñaki Urreta Leturiando  
Aitor Antxia Leturia

## Telebisiboak gara



J.J. Aretxaga

Telebistan asko urteten dugu atxabaltarrok. Betiko karetoetatik aparte, beti be, hau dela edo bestea dela herritarren batek lehio txikian urteten du. **Miriam Urkia** UZEI elkartean dabil lanean eta lehengunean urten zuen Atzekoz Aurrera izeneko hiztegi bereziaren aurkezpenean. Euskal kulturaren zeresanik badugun seinale. **Jesus Arregik** ere urten zuen, astronomiaren gainean berbetan. Dotore egiten dute berba gure herritarrok euskera 'ofizialean' be. Ez gara makalak.

Eta inportanteena, Santageda mutilak agertu ziren ETBko Gaur Egunean. Santa Ageda bezperako eske eta kantu ohitura erakutsi gura eta gure herria aukeratu zuten. Majo. Eskerrak ez zituztela zapatu goizeko etxafleruen eskandaluok bota. Haundia izan zen gero zapatu goizekoa. Septimo de Caballeria

zeturrela emuten zuen. Hango eskandaloa mutilak! Diru guztia horretan gastetan da ala. Gainerako komentarioak be entzuten dira kalean: kantau, ondo; dantzan, no comment. Ahaztu egin behar zaigu fandango bat zer den. Eta banakoa, zelabait.

Telebista kontuekin akabetako, **Gorka Etxabe** ATBn lanean hasi dela be enteratu gara. Tradizioari jarraituz, Arrasateko zuloak atxabaltarrez beteten jarraiketan dugu.

Beste insumiso epaitu bat be badaukagu herrian: **Xabier Sarasua**. Normalean gaur egun epaiketak bost minutuan beintiletan dira baina Xabier hiru ordu laurdenean egon ei zen juezari gauzak esaten. Trankil geratu ei zen behintzat. Ea hainbeste denpora emuten dioten **Gorka Leteri** be. Hau hilaren 14 an epaituko dute.

Murrukixok be barritu ditu bere buruzagiak. **Fernando Uribesalgo, Tomas Ribera, Pedro Zugasti, Mikel Iturbe, Joseba Gabilondo, Aitor San Migel** eta **Jose Jabier Irure** dira zuzendaritza taldeko partaide barriak. Ea zela egiten duten.

Eta akabetako aratusteetarako animatuaz fan zaitezten. Hilaren 23an, eguen zuri dela eta sorpresa bat eukiko dugu. Sorpresa hori kalean gora eta kalean beheara ibiliko da. Hobeto esanda, "goiko kaletik" etorriko da.

## A R E T X A Z O K A

### LANAK

- Mota guztietako konponketak egiten dira bizikletetan. Santa Kurtz kalea, 2-5  
Telefonoa: 79 81 90
- Masailari diplomatuak bere zerbitzuak eskaintzen ditu Lehenengo kontsulta dohainik izango da.  
Telefonoa: 78 24 35

### ETXE BIZITZA

- Baseri bat salgai dago Bergaran. Interesatuak deitu 71 63 31 telefonora.
- Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu letatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

- Apartamentua eta garajea salgai daude Ezkarain (Errioxa). Harremanetarako deitu 79 73 15 telefonora.
- Jantzitako etxea alokatzen da. Zaraia, 2 kalea 3.pisua  
Telefonoa: 79 17 08

Atal honetako iragar-kiak dohainik dira, beraz, iragarkirik jarri nahi izanez gero deitu ondorengo telefonora: 79 01 05





Mari Karmen Agiriano

## Aretxabaleta okindegikoa



Mari Karmen Agiriano

"Ogia oso elikagai garrantzitsua da, nik edozein otordutan jaten dut ogia. Postre ostean ere gustora jaten dut ogi zatitxo bat. Etxean ez dut aspaldian ogirik egin hemendik eramaten dugu eta".

- **Saltzen ez den ogiaz zer egiten duzue?**  
Batzutan ogi birrindua egiteko erabiltzen da, beste batzutan aldiz gorde eta animaliei emateko.
- **Ogi integrala asko saltzen da?**  
Bai, gero eta gehiago.
- **Ogi integrala osasuntsuagoa da?**  
Nik uste dut baietz, baina modak egoten dira.
- **Ogi ona egitearen sekretua:**  
Gauza asko daude hor tartean, esperientzia, labako hotz-beroa, osagaiak e.a..
- **Baserrira ala kaleko etxeabizitzeko?**  
Kalea.
- **Horoskopoa irakurtzen duzu?**  
Bai, egunkarietan irakurtzen dudan lehengo gauzetariko bat da.
- **Zer iruditzen zaizu Santa Ageda neskak izatea?**  
Ondo iruditzen zait.
- **Mozorrotuko zara haratusteeetan?**  
Ez, aurten ez, baina jantziko banintz azken momentuan pentsatutako zerbaitetaz izango litzateke.
- **Ehizaren alde edo kontra?**  
Ez alde eta ez kontra. Aita eta anaia ehiztariak dira.
- **Diskotaka ala taberna?**  
Berdin zait, baina bukaeran diskotekara denbora puskat egitera.
- **Siestarik egiten al duzu?**  
Bazkalostean astia izaten badut bai.
- **Karapaixorik egingo al duzue aurten?**  
Bai, orain artean urtero egin izan ditugu.
- **Zer telebista kate ikusten duzu normalean?**  
Denak ikusten ditut, tele-mandoaz sarritan aldatzen ibiltzen naiz.
- **Zein da bizitatu duzun herririk politena?**  
Ez naiz herri askotan izan, baina Zarautz asko gustatzen zait.



**Jon Garro** da aurreko alean saritu suertatu zena. On egin.

ARETXAGAZETAKo bazkide batek, beste lagun batekin, **Burgales Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu eta gainera ARETXAGAZETAKo bazkide izan.

## JAKI GOXOAK ETA GIRO ATSEGINA

Durana, 12 • ARETXABAleta  
Tfnoak: 79 20 63 / 79 17 11

### Zer jaki da berezia Burgalesenean?

**a.- Arroza perretxiko eta barazkiekin**

**b.- Barazki aukeratuak**

**d.- Frituak**



Erantzuna: .....

.....

Izena: .....

Kalea: .....

Tfnoa: .....

**BERGARA**



**Otsailak 9 eguna**

**IKASLEEN ESKULANEN ERAKUSKETA**

Izaskun Saiz eta Edurne Uribealgoren eskutik. Urtarrilaren 31tik otsailaren 12ra.

**Otsailak 10 eguakotxa**

**ZINEMA**

Ipar haizearen itzulera.

**OÑATI**



**Otsailak 19 domeka**

**PIANO ETA TXELO KONZERTUA**


Arratsaldeko 7,30etan Santa Ana antzokian, **Ricardo Sciammarella** eta **Eva Pereda** bikoteak eskainita.

**Otsailak 20,21**

**ZINEMA**

Ipar haizearen itzulera

**ARRASATE**




**Otsailak 3tik 19ra**

**PINTURA ERAKUSKETA**

Victor Ayalaren margoak aurkeztuko dira Harresi Aretoan (Iturriotz 35).

**ARRASATE**



**Otsailak 7tik 19ra**

**IÑURRATEGI ANAIEN ERAKUSKETA**

Monterron kultur etxean izango da. "Gailurretan" izenburupean, ordutegia, egunero 18-20, larunbat eta jaiegunetan 12-14; 18-20

**Otsailak 11,12**

**ESKI TRABESIA**

Arrasateko Besaidek antolatuta, bi egunetarako irteera. Izenematea otsailaren 6tik 7ra bitartean, arratsaldeko 7:30etatik 8:30etara bitartean.

**Otsailak 16, eguna**

**ZINEA**

"Fresa y chocolate", gaueko 9,30etan Amaia Antzokian. Sarrera 300 pezeta, gazte txartelarekin 250 pezeta.

**Otsailak 17, eguakotxa**

**ANTZERKIA**

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian BEDEREN 1 taldearen "Errenta" antzezlan. Sarrera 700 pezeta (Gazte txartelarekin 500 pezeta)

**Otsailak 20tik 24ra**

**EUSKAL PILOTAREN ERAKUSKETA IBILTARIA**

Monterron kultur etxean

Honez gain Euskal Dantza ikastaroa, argazkigintza ikastaroak eta saltsa ikastaroa izango dira Arrasaten. Informazio gehiagorako deitu Gazte Informazio Bulegora  
Telefonoa: 77 00 65



Berrikuntzak

**MODAN DAGOEN GUZTIA**

Iparragirre,4

**"HERRASTI" AKEITA**



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83

**LASA AGUILERA**

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETA

**OSKAR**

HARAGITEGIA

Loramendi,1  
☎ 79 71 69

ARETXABAETA



Otsailak 11, zapatua

GAZTETXEAN EGUN BEREZIA

4. urtebetetze-eguna dela eta, Aretxabaletako Gazte Asanbladak antolatuta (A.G.A.), poteo eta bazkari popularra, mus eta tute txapelketa, partxis txapelketa, futbolen txapelketa, txokolatada, kontzertua, azken hau "Flying Repollos" taldearekin, e.a. izango dira.

Otsailak 12, domeka

MENDI IRTEERA"

Murrukixo Mendizale Elkartek antolatuta, San Lorentzora irteera. Goizeko zortzietan izango da irteera partenoitik. Egun guztirako irteera da, eta apuntatu Arlutz tabernan egin behar da otsailaren 9a baino lehen.

SANTA AGEDA MUTILAK

Arratsaldeko 7etan herriko plazan banakoa eta desafioa dantzatuko dute, kalejira batekin jarraitzeko.

Otsailak 14, martizena

SAN VALENTIN EGUNA

Larrosak axukre kokorrari

Otsailak 19, domeka

SAMINORA IRTEERA

Zaraia Mendi Taldeak antolatuta.

SANTA AGEDA MUTILAK

Arratsaldeko 7etan herriko plazan banakoa eta desafioa dantzatuko dute, kalejira batekin amaitzeko.

SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Berri-zahar taldeak antolatuta, Ataungo "Urbitate" sagardotegira. Izena emateko azken eguna otsailaren 13a izango da Loramendi Kultur Elkartean.

Otsailak 24, eguakotxa

HITZALDIA

Hies/ Sidari buruzko hitzaldia, Tril emakume taldeak antolatuta. Hizlariak, Bermeoko TXO HIESA T4 taldeko, Bakarne eta Ane eta Arrasateko HIES EKIMENA taldeko partaide den Domi.

Otsailaren 24an ostirala, arratsaldeko 8etan, Loramendi Kultur Elkartean.

Atxabaltako biztanle guztioi iragartzen zaizue, otsailaren 7tik martxoaren 3ra bitartean, "ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTAPENAREN AURRERAPENA" erakusketa izango dela Euskal Txokoan, Durana 11 kalean. Interesgarria da biztanle guztiontzat.

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 18
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkartea 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkartea 79 33 99
- SOS Deiak 088

*Escort*

'95



**M MUGARRI** 

Tfnoak.: 943 - 79 75 64 • 79 07 54 - 79 07 44